

LIBURU aurrerapena >

Haragia

Ez dakit hondartzako haizeagatik edo hainbeste eme zimelgabe zabaldurik nigandik hain hurbil eta era berean hain urrun ikustearen frustrazioagatik ote den baina ikusmira honek balio dit, haragi gosea idazketaren bitartez asetzen dut. Hendaia hondartza egunez sentimendu bat da, ezer ez den, inon ez dagoen, inor ez direnen herri hau. Ospitaleak, aireportuak, kontzentrazio esparruak eta Hendaia hondartza. Argia edo itsas marruma baino gehiago zoko honetako mikromundua da nire bazka, gure herriaren ezkerretik zentrorra bitarteko joera guztien mausoleo biziduna.

Hemen, eguzkipeko araztasun erabatekoan, askatu egiten naiz. Eguzkia horretarako baita ene irtiz: isilki erretzen zaitu, erregostearen txinpartak entzun ditzakezu belarria finduz gero, eta usaintxo hori, erretasun hori. Eguzkiak min ematen baitu, eta min horrek beste min guztiak estaltzen baititu.

Hondartzaren alde arrokatsua maite dut: historiak haitzetan egindako zuloetan karioak pausatzen, horizontea oztopatzen duten Tonben nazimendu maiestatikoa. Homosexual deitzen diren horiek hartu dute egun alde hau, eta toalla zabaldu orduko ondoan etzango zaizu bular nerabeko ipurdi esturen bat. Nola nahi ere, neska freskoak ikusteko toki paregabea izan da beti, begi likatsuz eta eskukada bete hortzez «naturala da!» dela dioten horiei benetan probetxua ateratzeko, ordainsari bakarra norberaren gordintasuna agerian uztea izanik. Ez da garesti.

Atzeraeraginezko memoriaren mirariak zer diren, egun hura gaurokoa balitz bezala ikus dezaket nire aurrean: goizeko hamarrek ziren eta eguzkiak erretzen zuen arren, jende gutxi zegoen hondartzan. Alde batean paristarren *falsetto* ahotsak nituen arazo domestikoei buruz hizketan munduko ardatzen izaera ekonomikoaz ari direnen imintzioekin; bestean, bakarrik ez zegoela salatzen zuten bi oinetako pare behor gazte baten ondoan. Eguzkitako betaurrekoak sudur puntarantz lerrotu nituen argiagotzeko: hogeit bat urte, gorputzean adabaki zuririk gabekoa, beraz ez zen zona nudistara sentsazio berri bila etorria. Itsasertzetik Ulises gerturatu zen, neoprenoan bildurik, arpoia zakilduta. Leka erantzi zuen, tupustean, eta onartu beharra daukat haragi puska ederra zela morroi hura ere. Ile bustia astindu zuen neskaren gainean, eta titiburu harrituak irudikatu nituen gorpuzñoa zauritzen. Bezperan jaiotakoak ziruditen neska haren bularrek. Urrutia-

go, belarretan kasik, emakume zuri bat eta gizon beltz bat etzanda, hogeita hamar urte ingurukoak. Neska zurbila zen oso, eta krema geruza lodia zeukan aurpegian. Ile gorriak zituen, marrazki afrikarrako zapi batean jasorik. Gizona ukalondoetan bermaturik zegoen itsasoari begira, eta frantsesez bazekien arren, ezarritik hitz egiten zuen, kolpeka bezala. Neska ahuspe zegoen etzanda, burua eskuen gainean pausatutik, betileak astinduz beltzaren isilune bakoitzean. Miresmenez entzuten zion, noizean behin ingurua barrandatu. Ezin nuen elkarriketa entzun, baina Mon pays ulertu nuen behin baina gehiagotan, ezarri beltzetik irtendako *Mon pays* urrun eta zurruna. Ilegorriak, beltzak hori esaten zuen aldiro izter ingurua igurtzen zion gizonari, amatasunez, esango nuke. *Cassos* bat zela argi zegoen, *cas-social* bat hemen esaten duten bezala, izan ere horrelako koittadu batzuk ezagutu baititut nik ere bizitzan, eta baita haien gaixotasunaz profiatu ere, eta zerbait ikasi badut haxe: larrutaldi horiek guztiak ez dute balio trukean eman beharreko laguntza psikologiko amihni bakar bat ere. Lan-kideei kontatzen irudika nezakeen denda etniko batean erositako soinekoa jantzita «Ahmadou, Boli Kostaia joia da eta duela bi urte heldu zen Frantziara, bere herria oso-oso gaizki dago eta abar eta abar», afrikarraren zakil pendularrak hipnotizatutako hitz jariora, emakumearen sasi-ezkertiartasuna, bere askapen femininorako ur-



Eider Rodriguez
idazlearen (Errenteria, 1977) *Haragia* (Susa) liburu berriak hamabi ipuin batzen ditu. Aiztoaren ahoan ebakitzeko kinkan diren pertsonaiak agertzen dira liburuko narrazioetan: bizi-aldi berri baten atarian, harreman gatazkan gainbehera, urraduran expala sartuta. *Haragia* du izenburu liburuko aurreneko ipuinak, eta honako hau da ipuin horren hasiera.



LANDER CARRO

tetako ahalegina gizon haren hipnosi gaitasunak birrindurik, zeinarentzako, normala denez bere herrian, emakumeak etxola garbi izateko eta arrazaren biziraupena bermatzeko baino ez ziren. Horrelako zerbait idazten ari nintzen, axota papera urratu ahala berotuz, barruan daramadan irakurle txiki horren irribarre erdiak irudikatuz.

Filia berezia nirea, dudarik ez. Oraindik ezin dut ulertu zer dela eta onartu nuen lanbide hau. Maitasun beharra dela onartzea higuin garria zait. Eta zinez, ez dut uste hori dena. Sexutik hurbilago dago. Emakumeen barreak eragitea izan dut helburu urteetan, hasieran hizketaren bitartez, gero idazketak lagunduta. Denbora pasa ahala, helburuak lausotuz joan dira, eta barrea eragin behararen ohitura gelditzen zait soilik. Baina hasierako helburua oroitu dut egunotan: haien hortzoiak agerian uzteko grina. Aho barruko haragi heze harekin bakarrik berotzen nintzen garai batean, aluaren irekiduraren iragarle. Eta egidazue kasu, ez dago tronpatzerik: hortzoi gorriminak alu freskoen salatari dira, eta marroixkak, tira, nahiago dut oroitzapen horiek alboratu.

Gizonkote bat su eske etorri zitzaidan. Eskaini nionean bere zakilburuarekin egin nuen topo, eta gorago, bekain depilatuen azpiko begiratuarekin. Arrosa kapulu bat zirudien, eta nik ez ditut ez arrosak ez kapuluak maite. *Metxi*, esan zidan modaz pasatako hitza erabiliz. Zer gertatu zen ulertu nahian nabil eta ahalik eta zehatzaren izan nahi dut kontakizunean, itxaroten baizik ez dakien txorimalo honetan bihurtu ninduen konbinazio kosmikoren baten bila. Orduan izan baitzen. Morroi haren apendizak mehatxatuta sentitu nintzela eta, zahartzen hasia ote nintzen bururatu zitzaidan. Beso gorritzen hasia usaindu nuen, kremarik gabe ederki usain daitekeen lurrina, eta ura, pentsatu nuen, uretara noa. Bainujantzia jantzita abiatu nintzen. Pasaeran ahalik eta edertasun gehien ehizatzen saiatu nintzen, beti ere, pieza baten ostean begiratu hodeietzera itzuli eta marinela begiratu antzetzuz, ez nuen kanpaia jotzera hurbildutako inuzente batekin nahastea nahi.

Esan gabe doa, itsasoaren lehen metroetan barneratzea baino gauza tamalgarriagorik ez dago, zaharren sexu soilduak, luzaketak egiten ari diren agureak, oraindik tripa zintzilik duten amak kumetxoekin, gazte maiztuak eta itsas-belarren setioa. Uretara sartu eta ahalik eta azkarren egin ohi dut igeri, arnasarik gabe gelditu arte, ahalik eta urrutien irtsi arte. Bodyboardinga egiten ari zen paristar horietako bat zela pentsatu nuen lehendabizi, baina haragi indarge hori guztia ito batena beste inorena ezin zen izan.